

Euskal AEko nekazaritza-ustiategien kopurua % 4,3 jaitsi zen 2009 eta 2013 artean

Ustiapenen batez besteko neurria handitu egin zen: 15,8 hektareako izatetik 16,4 hektarea edukitzera

Nekazaritza-ustiategien kopurua % 4,3 jaitsi zen 2009 eta 2013 bitartean, Eustatek landutako datuen arabera. Azalera, guztira, % 0,7 jaitsi zen eta erabilitako nekazaritza-azalera (landutako lurrak eta bazka iraunkorrerako lurrak) % 1,6 murriztu zen. Ondorioz, nekazaritza-azaleraren ratioa gutizko azaleraren gain % 72,1ekoa izan zen 2013an, 2009an baino % 0,6 txikiagoa.

Batez besteko azalera % 3,8 handitu zen; ondorioz, ustiategi bakoitzeko 16,4 hektarea zeuden. Alderdi hori ustiategi bakoitzean erabilitako nekazaritza-azaleraren (ENA) batezbestekoan ere nabaritu zen. Izan ere, 11,5eko hektareakoa izatetik 11,8 hektareakoa izatera pasatu zen.

Espainian, ustiategien kopurua ere jaitsi egin zen (-% 2,5), hala ere, erritmo baxuagoan. Guztizko azaleraren jaitsiera handiagoa izan zen, baita erabilitako nekazaritza-azalera ere (-% 1,9 bi kasuetan). Ustiategien batez besteko neurria nabarmen handiagoa izan zen, baina horrek ere igotzeko joera izan zuen, zeren 2009an 30,92 hektarea (ha) zeuden, 2013. urtean, ordea, 31,13 ha.

Euskal AEn erabilitako nekazaritza-azalera (ENA) jaitsi egin zen, landutako lurren azalera jaitsi zelako (-% 3,7), batik bat, fruta-arbolako lurretan (-% 24,3), zuretarako lurretan (-% 12,0) eta mahastietan (-% 6,1), zeren bazka iraunkorrerako lurrak ia egonkor mantendu ziren (-% 0,1).

1. taula. Eraitza nagusiak. Euskal AE

	2013	2009	2013/2009 %
Ustiategi kopurua	15.835	16.554	-4,3
Azalera osoa (AO) (ha)	259.797	261.700	-0,7
Nekazaritzako azalera erabilia (NAE) (ha)	187.251	190.273	-1,6
Lur landuak (LL)	75.880	78.811	-3,7
- Belarrezko eta lugorriak (*)	60.485	62.056	-2,5
- Fruta-arbolak	1.501	1.981	-24,3
- Olibadia	167	147	13,6
- Mahastia-fruta	13.653	14.544	-6,1
- Beste zurezkoak	73	83	-12,0
Larre iraunkorrak	111.371	111.462	-0,1
Egiturako adierazleak			
Ustiategiko batez besteko AO (ha)	16,4	15,8	3,8
Erabilitako nekazaritza azalera (ENA), ustiategiko (ha)	11,8	11,5	2,6
Ustiategiko batez besteko behi-azienda kopurua	24,2	23,0	5,4
Ustiategiko batez besteko ardi-azienda kopurua	57,3	60,0	-4,6
Ustiategiko batez besteko ahuntz-azienda kopurua	13,3	13,4	-0,7
Ustiategiko batez besteko txerri-azienda kopurua	33,8	17,9	89,0
Ustiategiko batez besteko hegazti kopurua	251,9	253,5	-0,6

(*) familia- baratzeak barne

Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egiturari buruzko inkesta. 2013

Ustiatiegien batez besteko tamaina handitu egin zen Araban eta Gipuzkoan, Bizkaian, ordea, jaitsi egin zen

Lurraldeen bilakaera ez da homogeneoa izan. Gipuzkoan bai guztizko azalera (% 3,5) bai ustiatiegien kopurua igo egin zen (% 0,8). Horrela, ustiatiegien batez besteko tamaina 2013an 13,6 hektareakoa zen, 2009koa baino % 2,7 handiagoa. Aitzitik, Bizkaian, bi kontzeptuak jaitsi ziren, eta ustiatiegien kopurua ere % 4,5 jaitsi zen. Hori dela eta, Bizkaiko nekazaritza-ustiatiegiek erkidegoko txikienak izaten jarraitu zuten, ustiategi bakoitzeko 9,4 hektareakoak baitziren 2013an (-% 4,8). Araban, guztizko azalera (% 1,5) handitu zen, baina ustiatiegien kopurua jaitsi egin zen (-% 11,3). Horrek ustiategi bakoitzeko batez besteko hektarea-kopurua handitzea (% 14,4) eta lurralde honetan 35,9 hektareakoa izatea ekarri zuen.

Erabilitako nekazaritza-azalera (ENA) handitu egin zen Gipuzkoan (% 1,7), baita Araban ere (% 0,8), bazka iraunkorrak handitu baitziren. Bizkaian, ordea, bai landutako lurrak bai bazkatarako lurrak jaitsi ziren (-% 10,4).

Araban mahastitarako azalera eta ustiatiegien kopurua jaitsi egin zen. Arabako ustiatiegien batez besteko tamaina mantendu egin zen (10,9 ha). Bizkaian, gehiago jaitsi zen, ondorioz, ustiatiegien batez besteko neurria nabarmen murriztu zen. Hori dela eta, 1,7 hektarea izatetik 0,8 hektarea izatera pasatu ziren. Gipuzkoan, hala ere, ustiatiegien kopurua jaitsi egin zen, baina mahastitarako azalera handitu egin zen. Horrek esan nahi du ustiatiegien batez besteko tamaina 2,8 hektareatik 4,9 hektareara igo zela.

2. taula. Guztizko azalera, erabilitako nekazaritza-azalera eta probetxu-mota

	Euskal AE			Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Ust.	Ha.	Ustiatiegiko batez besteko ha. Kopurua	Ust.	Ha.	Ustiatiegiko batez besteko ha. Kopurua	Ust.	Ha.	Ustiatiegiko batez besteko ha. Kopurua	Ust.	Ha.	Ustiatiegiko batez besteko ha. Kopurua
Azalera osoa (AO) (ha)	15.835	259.797	16,4	3.265	117.348	35,9	6.733	63.131	9,4	5.837	79.318	13,6
Nekazaritzako azalera erabilia (NAE) (ha)	15.804	187.251	11,8	3.262	102.954	31,6	6.706	39.919	6,0	5.836	44.378	7,6
Lur landuak (LL)	13.277	75.880	5,7	2.830	70.752	25,0	5.380	2.748	0,5	5.067	2.380	0,5
- Belarrezko eta lugorriak (*)	11.826	60.485	5,1	1.928	57.530	29,8	5.079	1.958	0,4	4.819	997	0,2
- Fruta-arbolak	3.876	1.501	0,4	169	93	0,5	1.643	538	0,3	2.064	870	0,4
- Olibadia	252	167	0,7	226	164	0,7	15	0	0,0	11	3	0,3
- Mahastia-fruta	1.618	13.653	8,4	1.189	12.918	10,9	331	250	0,8	98	485	4,9
- Beste zurezkoak	69	73	1,1	24	47	2,0	21	2	0,1	24	24	1,0
Larre iraunkorrak	13.611	111.371	8,2	1.413	32.202	22,8	6.486	37.171	5,7	5.712	41.998	7,4
Bestelako lurrak	11.630	72.376	6,2	1.415	14.206	10,0	4.768	23.302	4,9	5.447	34.868	6,4

(*) familia- baratzeak barne

Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiatiegien egiturari buruzko inkesta. 2013

Araban haztegi bakoitzeko azienda-espezie bakoitzeko abelburuen batez besteko kopurua handitu egin zen

EAEko abeltzaintza-ustiatiegien kopurua jaitsi egin zen ganadu-mota guztietan, ahuntz-aziendan izan ezik (zeren % 9,5 igo zen). Jaitsierarik handienetakoak txerri-haztegietan (-% 37,5) eta behi-haztegietan (-% 10,9) izan ziren. Hegaztienak eta ardiak, berriz, ia maila berdinean mantendu ziren (-% 0,7) eta (-% 0,1). Badirudi haztegien kontzentrazioa izan zela txerri-haztegien kopurua modu drastikoan jaisteko arrazoiak, zerena, 2009an, haztegi bakoitzeko 17,9 abelburu zeuden, aitzitik, 2013an, 33,8koa zen ustiategi bakoitzeko kopurua. Behi-azienda, aldiz, gutxiengo jaitsi zen; izan ere, batez beste 23,0 abelburu zeuden 2009an, 2013an, ordea, 24,2. Hegaztien eta ahuntzen haztegien batez besteko tamainak jaitsiera arinak izan zituen, zerena hegaztien haztegietan 253,4 abelburu izatetik 251,9 abelburu izatera pasa ziren; eta

ahuntzen haztegieta, 13,4 izatetik 13,3 izatera. Ardien haztegieta, 2009. urtean 60,0 abelburu zituzten, 2013. urtean, aldiz, 57,3.

Lurraldeka, hala ere, egoera aldakorragoa izan zen. Araban, txerrien (-% 62,4), hegaztien (-% 44,6) eta ardien (-% 18,2) haztegiak nabarmen jaitsi ziren, -% 62,4, -% 44,6 eta -% 18,2, hurrenez hurren; aldiz, ahuntzen zein ardien haztegiak igo egin ziren, % 10 eta % 0,6, hurrez hurren. Bizkaian, aitzitik, azienda-haztegi guztien kopurua jaitsi egin zen, ahuntzena izan ezik (% 22,4). Batez ere, txerrien eta behien haztegiak jaitsi ziren, -% 45,8 eta -% 21,9, hurrenez hurren. Gipuzkoan, haztegi hauek jaitsi ziren: txerrienak (-% 20,6), ahuntzena (-% 11) eta behienak (-% 2,6). Hegaztiak eta ardiak, berriz, handitu egin ziren, % 12,5 eta % 7,2, hurrenez hurren.

Haztegien tamainari dagokionez, lurralde bakoitzeko egitura oso desberdina izan zen. Hala, Arabakoetan zeuden espezie guztietako abelburu-kopuru gehien; Bizkaian, berriz, haztegi txikiak egon ziren. 2009ko aldearekiko, bilakaera desberdina izan da. Arabaren kasuan, espezie guztien azienda-haztegien tamaina handitu izana nabarmenezkoa da, batez ere, nabarmena da txerrien eta hegaztien kasuan. Horietan, hurrenez hurren, lau aldiz eta bi aldiz handitu zen haztegi bakoitzeko abelburuen kopurua. Bizkaian, aldiz, tamainaz handitu zuten haztegi bakarrak ahuntzenak eta txerrienak izan ziren. Gipuzkoan, berriz, haztegi-mota guztietan haztegi bakoitzeko abelburu-kopurua jaitsi zen.

3. taula. Abeltzaintza. Espezie nagusien haztegien eta azien abelburuen kopurua

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Ust.	Abelburuak	Ust.	Abelburuak	Ust.	Abelburuak	Ust.	Abelburuak
Behi-aziendak	5.284	128.111	684	40.231	2.084	40.747	2516	47.133
Ardi-aziendak	4.534	259.592	427	55.050	1.791	61.180	2316	143.362
Ahuntz-aziendak	1.758	23.393	165	4.431	1.092	12.858	501	6.104
Txerri-azienda	561	18.982	32	13.562	251	1.812	278	3.608
Hegaztiak	6.255	1.575.502	355	182.512	2.485	745.286	3415	647.704

Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiatzearen egiturari buruzko inkesta. 2013

Metodologiaren inguruko oharra: Datuak 2012ko urriaren 1a eta 2013ko irailaren 30a bitarteko nekazaritza-kanpainari buruzkoak dira. Nekazaritzako ustiatze bat egongo da kokatua lurrik gehien dituen udalerrian edo zalantza kasuan erakin nagusia edo bakarra dagoenean. Populazioaren esparrua Erabilitako Nekazaritza Azalerako (ENA) gutxienez hektarea bat duten abeltzaintza-haztegiei buruzkoa da. Aire libreko edo erregadioko fruta-arboletako edo haztegiak edo berotegiak barazkietara eta lore nahiz landare apaingarrietarako ENAko 0,2 ha, tabakotarako edo lupulutarako edo kotoietarako ENAko 0,5 ha, Abeltzaintza Unitate (AU) bat edo gehiago eta Guztizko Produkzio Estandarra (GPE) edo Europako Dimentsioko 0,75etik gora Unitate (EDU).

Inkesta hau Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) lankidetzarekin egin da Euskal AEn.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Abeltzaintza-haztegieen egiturari buruzko inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago